

BEZEROEKIKO HARREMANAK :

Bezeroekin edukiko dugun komunikazio eta erlazio oso garrantzitsua iruditzen zaigunez, pertsona talde batek x lekutik y lekura bidaiatu nahi badu gaez, eta ez badu garraiatzeko beste modurik taxi bat oso txiki gelditzen zaielako, 644 987 652 telefonora dei dezakete beraientzat bakarrik autobus edo mini autobus bat enkargatu ahal izateko.

Bezeroek langile guztiak ez dituzte berdin ikusiko. Izarne eta Martin beste 2 lagunekin batera gidariak izango direnez, bezeroak konstanteki ikusiko dituzte, eta bezeroek duten edozein kexa edo aldarrikapen langile hauengana erreparatuko dute.

JIM enpresak eman nahi duen irudia ona da, asertiboki jokatuko dugu eta kexak asertibitatez erantzungo ditugu ere. Beraz, hau kontutan hartuta, gure bezeroek guk hartzen dugun rola arabera eta gure jarreraren arabera deskribatuko gaituzte.